



2026SPLE0004
3.bilera: OHIKOA 2026/05/28

**Saioaren irudiak eta audioak grabatu egin dira, eta horiek akta osatzen dute.
Hona hemen horietarako sarbidea:**

<https://bideoaktak.deba.eus/bideo/202605280819000000/>

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2026/04

EGUNA: 2026/05/28

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:05

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea (EAJ).

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.

Jon Riaño Ojanguren.

Monica de Prado Paniagua.

Andima Egaña Egaña.

Ainhoa Urbieto Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

Jon Ander Urain de Jesus.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.



2026SPLE0003
3.bilera: OHIKOA 2026/04/29

Idazkaria: Iñaki Galdos Landa.

EZ BERTARATUAK:

Itziar Irizar Beristain.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurei dagozkien akten zirriborroak onartzea, hala badagokio.

2026ko apirilaren 29ko Osoko Bilkurako akta ikusi da.

Aztergai honetan Gilen Garcia Boyra jaunak parte hartu du eta, aurrerantzean Osoko Bilkuren aktetan, eskari eta galderei dagokien atalean, nortzuk hitz egin duten jartzeaz gain, galderen gaiak zein izan diren ere azaltzea eskatu du.

EMAITZA: AHO BATEZ ONARTUA

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Ondorengo Alkatetzaren ebazpenen berri eman zen: 2026ko apirilaren 23ko, 190 zk.tik, 2026ko maiatzaren 25ko 278 zk.ra (biak barne).

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote zuen Alkatetza dekretuen harira.

Ez da izan inongo galderarik

EMAITZA: Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3.- Onartzea, hala badagokio, Andima Egaña Egaña zinegotzia, Anton Garay Berecibar zinegotzi ohia izendatuta zegoen erakundeetan izendatzea



2026SPLE0003
3.bilera: OHIKOA 2026/04/29

Alkate andreak, gai zerrendako proposamen honen inguruko azalpenak ematen ditu, akta honi erantsitako bilkuraren grabazioan ageri denaren arabera.

Andima Egaña Egaña zinegotzia (Anton Garay Berecibar zinegotzi ohiaren ordezkari) honako erakundeetan Udalaren ordezkari titular edo ordezkari izendatzeko proposamena:

Debabarreneko Mankomunitatea: Titularra.

Gipuzkoako Ur Partzuergoa: Ordezkoa.

DEBEGESA: Ordezkoa.

Itziar-Deba enpresa parkea: Ordezkoa.

UEMA: Ordezkoa.

Bozketaren ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu du proposamena, akordio bihurtuz.

BOZKETAREN EMAITZA:
AHO BATEZ ONARTUA
GEHIENGOA OSOA

-ALDEKO BOTOAK: 12 (EAJ/PNV, 6; EH BILDU, 5 eta ORAIN DEBA, 1)

4.- Onartzea, hala badagokio, Itziarko Auzo Udaleko 1. kreditu aldaketa.

Alkate andreak, gai zerrendako proposamen honen inguruko azalpenak ematen ditu, akta honi erantsitako bilkuraren grabazioan ageri denaren arabera.

Antolakuntza Batzordeak, 2026ko maiatzaren 18an egindako ohiko bileran, aho batez, irizpen hau eman zuen:

Onartzea, hala badagokio, Itziarko 1. kreditu aldaketa.

Aurkeztutako Itziarko Auzo Udaleko 1. kreditu aldaketa proposamena honako hau da:



2026SPLE0003
3.bilera: OHIKOA 2026/04/29

GASTOAK

Kap	Gastuen egoera	
6	BIDE KONPONKETAK	<u>40.000,00 €</u>
	GUZTIRA	40.000,00 €

ERABILITAKO BALIABIDEAK

Kap		
8	ALTXORTEGIKO GERAKINA	<u>40.000,00 €</u>
	GUZTIRA	40.000,00 €

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu du proposamena, akordio bihurtuz.

BOZKETAREN EMAITZA:
AHO BATEZ ONARTUA
GEHIENGOA OSOA

-ALDEKO BOTOAK: 12 (EAJ/PNV, 6; EH BILDU, 5 eta ORAIN DEBA, 1)

5.- Onartzea, hala badagokio, Debako Bake Epailea (titularra eta ordezkoa)

Alkate andreak, gai zerrendako proposamen honen inguruko azalpenak ematen ditu, akta honi erantsitako bilkuraren grabazioan ageri denaren arabera.

Antolakuntza Batzordeak, 2026ko maiatzaren 18an egindako ohiko bileran, aho batez, irizpen hau eman zuen:

“Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, 2026ko martxoaren 2an, Debako Udaleko ordezeko bake-epailea izendatzeko proposamena izapidetzen



2026SPLE0003
3.bilera: OHIKOA 2026/04/29

hasteko eskaera helarazi zion Udalari; izan ere, aurreko izendapenaren lau urteko aldia amaitu baita.

Horiek horrela, martxoaren 9an, Eibarko 1. Instantziako Epaitegira Debako Bake Epailea (titularra eta ordezkoa) izendatzeko deialdiari buruzko ediktua bidali zen, haien argitalpen taulan argitaratu zezaten.

Era berean, 2026ko apirilaren 7ko 62. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion ediktua argitaratu zen, bake-epaile izateko izendapenean interesa dutenek, Udaleko Idazkaritzan dagokion eskaera aurkezteko. Hortaz, izena emateko epea 2026ko apirilaren 8tik 28ra izan zen eta hiru eskaera aurkeztu dira.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. artikuluan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 4. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Debako Udalaren Osoko Bilkurari dagokio udalerriko bake-epaile titularra eta ordezkoa hautatzea. Horretarako, Antolakuntza Batzordeak irizpena eman behar du.

Gauzak horrela, antolakuntza Batzordeak, aho batez, bake epailea Leire Eizagirre Jauregi (titularra) eta Rafael Martínez Gutierrez (ordezkoa) hautatzeko aldeko proposamen irizpena eman du, eta Udalbatzara helaraztea erabaki du, hark onartu dezan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. artikuluan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 4. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Alde batetik, titularren izendapen proposamena Debarra delako eta postuan duen eskarmentua kontuan hartuta egin da. Bestetik, ordezkoaren izendapen proposamena haren ikasketa maila kontuan hartuta egin da.

Batzordeak bake epailea titularra eta ordezkoa izendatzeko erabakia hartu eta egun berean ordezko izendatutako Rafael Martinez Gutierrezek bake-epaile gisa aurkezteari uko egin zion.

Batzordekideekin hitz eginda, aho batez, erabakitzen da Leire Aizpuru Dominguez bake epaile ordezko izendatzeko irizpena ematea eta Udalbatzari helaraztea onar dezan”

Beraz, proposamena honako hau da:

Lehena.- Leire Izagirre Jauregi hautatzea Debako Bake Epaile titularra izateko.

Bigarrena.- Leire Aizpuru Dominguez hautatzea Debako Bake Epailearen ordezkoa izateko.



2026SPLE0003
3.bilera: OHIKOA 2026/04/29

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Sailari proposatzea Leire Eizagirre Jauregi izendatzea Debako Bake Epaile titularra eta Leire Aizpuru Dominguez izendatzea Debako Bake Epailearen ordezkoa.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu du Bake Epailea titularraren eta ordezkorearen izendapena, proposamena akordio bihurtuz.

BOZKETAREN EMAITZA:
AHO BATEZ ONARTUA
GEHIENGOA OSOA

-ALDEKO BOTOAK: 12 (EAJ/PNV, 6; EH BILDU, 5 eta ORAIN DEBA, 1)

6.- Eskari eta galderak.

Ez dira aurkezten.

Besterik ez zegoenez, 19:05etan alkateak amaitutzat eman zuen osoko bilkuraren bilera.

Alkatea

Idazkaria

Alazne Txurruka Allika

Iñaki Galdos Landa